

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDON
NEREA YEREGUI BALDA
IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI

BERTARATU EZ DIRENAK

ANDER PRADOS OTAMENDI

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Beteluko Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2023ko ekainaren 17an, goizeko hamabiak direlarik, joan den maiatzaren 28ko hauteskundeetan hautatuak izan diren eta ondoren adierazten diren zinegotziak bildu dira, Hauteskundeetako Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1.985 Lege Organikoaren 195 artikuluan ezarritakoa betez, eta Udala eratzeko bilkura burutzeko

Lorenzo Zubillaga Goicoechea, María Cristina Val Sardón, Nerea Yeregui Balda, Iñaki Elizalde Zubillaga, Igor Otermin Eguia eta Aitziber Otamendi Echarri Zinegotziek, Toki Araubideko Oinarri Legearen 75.7 artikulorekin bat, alde zuzenik, beren nortasuna egiaztatu eta bateraezintasun arrazoien, jardueren eta ondare ondasunen aitorpena egin dute, Korporaziokideen interes Erregistroan inskribatzearen ondorioetarako.

ADINEKO MAHAIA ERATZEA

Bilkura irekia deklaratu da, eta Hauteskundeetako Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1.985 Lege Organikoaren 195.2 artikulorekin arabera, bertaratutako zinegotzietan zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi zinegotzi hoiek mahaia osa dezaten, udal idazkariarekin batera. Beraz, erabaki da adineko mahaia era honetan osatzea:

Zinegotzi zaharrena, Lorenzo Zubillaga Goicoechea, adineko mahaiko lehendakaria

Zinegotzi gazteena, Iñaki Elizalde Zubillaga

Adineko mahaia Idazkaria, Joanes Aleman Ollo

Adineko Mahaiak zinegotzien egiaztagutunak aztertu ditu, beraien egokitasuna baieztatuz.

Jarraian, zinegotzien gehiengo osoa osoko bilkuran dagoenez, adineko mahaiak LEGEZ ERATUTZAT JOTZEN DU KORPORAZIO berria. Hona hemen zinegotzien zerrenda:

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDON
NEREA YEREGUI BALDA
IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
ANDER PRADOS OTAMENDI

Honen ondoren, bertaratutako zinegotziek banaka banaka, zin egin dute / hitza eman dute, legeak hala behartuta, "Karguak dakartzan betebeharrak jarraituko dituztela, Erregeari leialtasuna erakutsiz eta Estatuko Oinarrizko Araudia, Konstituzioa, bete eta betearaziko dutela" eta beraien kargua hartu dute.

Jarraian, idazkariak Beteluko Udalaren kontu korronteen saldoen berri eta udal ondarearen inbentarioaren berri eman dio Udalbatzari, zinegotziek azter dezaten:

Korporazio berria jakinen gainean gelditu da.

ALKATEAREN HAUTAKETA

Ondoren, Alkatea hautatzeari ekin zaio, horretarako, aipatutako ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak bere 196 artikuluan ezarritakoari jarraiki, alkatea aukeratzeko baldintzak gogorarazten dira:

- "Zinegotzi diren zerrendaburuak dira hautagai*
- Lehen bozketan, zinegotzi guztien (bertaratu gabeak barne) gehiengo osoa lortzen duena izango da alkate*
- Horrela gertatzen ez bada, udal hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako buru den zinegotzia izango da alkate*
- Berdinketa balego zerrenda bat baino gehiagoren artean, zozketaz ateratzen den zerrendako buru den zinegotzia izango da alkatea".*

Horrela bada, LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA Jauna (ARRITXU TALDEA Taldekoa) zerrendaburu izanik, bozketari ekin zaio, eta hona hemen lortutako botuen emaitza:

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA: Zinegotziak 7 boto

Bozketak erakusten duenez, **LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA Jauna da Alkate**, bozketan gehiengo osoa lortu duelarik

Ondoren, LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA Jaunak onartu egin du alkate izatea. Horrela izanik, Korporazioa aurrean duela, zin egin / hitza eman du, legeak hala behartuta "Karguak dakartzan betebeharrak jarraituko dituela, Erregeari leialtasuna erakutsiz eta Estatuko Oinarrizko Araudia, Konstituzioa, bete eta betearaziko duela, kargu horrek berekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin". Horrenbestez, LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA Jaunak, hartu egiten du Alkate kargua.

Goizeko hamabi eta erdiak direlarik, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.